

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Erreginaren DNA



Ezkerreko irudian, Vianako Printze Karlosen erretratua. Goian, Santa María la Real de Nieva monasterioa. Bertan ehortzi zuten Blanka I.a erregina, Karlosen ama.

SEGOVIA (ESPAINIA), 1441EKO APRILA.

Santa María la Real de Nieva izeneko herrian, Soterrañako Amabirjinaren omenezko erromerian, Nafarroako Blanka I.a hil zen, ezustean, Blanka alabaren eta gerora Gaztelako errege izango zen Henrike IV.aren ezkontzaren biharamunean. Erreginaren heriotzak agaramondarren eta beaumontarren arteko lehia areagotu zuen eta liskarrak urte batzuk geroago, 1450ean, eztanda egin zuen.

Baina bost mende eta erdi geroago, Blanka I.aren heriotzak edo, hobe esanda, Blankaren arrastoek, hainbat buruhauste eman diete ikertzaileei. Hipotesi guztien arabera, erreginaren gorpua Santa Maria la Real de Nieva monasterioan bertan ehortzi zuten, hilobiaren kokapen zehatzaren berri iritsi ez zen arren. 1994an monasterio horren aldarean zaharberritze lanak egiten ari zirela, emakumezko baten arrastoak topatu zituzten. Azterketa antropologiko eta paleopatologikoak bat zetozen erreginaren profilarekin: adina, altuera, eskeleto hauskorra... Ehorzketaren tokia eta xehetasunak ere garaiari eta hildakoaren garrantziari egokitzen zitzaizkien.

Hala ere, zalantzak uxatzeko ustezko Blankaren arrasto genetikoaren analisia egitea erabaki zuten. Horretarako, arrastotatik DNA lagin bat lortu eta gertuko senide baten DNArekin alderatzea besterik ez zen egin behar. Hautagai egokiena Karlos semea zen, Vianako Printzea. Beaumontarren buruak agaramondarren aurkako gatazka galdu zuen, eta Bartzelonan exekutatu zuten 1461ean. Printzearen gorpua Pobleteko monasterioan (Katalunia) ehortzi zuten. Baina hilobia ireki, eta adituek han eskeleto bati baino gehiagori zegozkion hezurak zeudela ikusi zuten, harriduraz. Azterketa sakonagoek hiru pertsonen arrastoak zirela argitu zuten. Hiruren artean ez zegoen odol loturarik eta, gainera, hiruren DNA Blankaren material genetikoarekin alderatzean, ez ziren bat etorri.

Segovian aurkitutako arrastoak Blanka I.a Nafarroako erreginarenak dira? Eta hala izanez gero, zein dira printzearen hilobiko hiru ezezagunak? Galdera horiei erantzuteko, hurrengo pausoa beste senide baten material genetikoaren azterketa izan daiteke, esaterako Leonor erreginarena, hau da, Blankaren ama eta Karlosen amonarena. Horrek erantzunak ekar ditzake, baina baita galdera gehiago sortu ere. ■

ARRASTOAK

INDIANA JONES eta kristalezko garezurraren erresuma da zinemako arkeologo ezagunaren laugarren abenturaren izenburua. Kristalezko garezurrak XX. mende hasieran azaldu ziren antigoaleko objektuen zirkuituan. British Museumez berak ere erosi zuen horietako buzetur bat. Artisau azteken eskuek sortu omen zituzten, baina azken urteetan ikusi ahal izan da faltsifikazioak baino ez zirela. Batetik, pieza horiek lantzeko horzdun gurpilak dituzten tresnak behar dira, eta aztekek ez zuten horrelakorik. Gainera, harri-kristala Brasilekoa omen da, eta piezak Alemanian landu omen zituzten, XIX. mendeko bigarren erdian.



Indiana Jonesen azken filma maiatzaren 22an estreinatuko dute, eta orduan ikusi ahal izango da pelikulako garezurrak museoetan daudenak bezain faltsuak diren.